

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2017ko ekainaren 27an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**7.- LANABES ELEKTRIKOAK RENTING SISTEMA BIDEZ HORNITZEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

**Planteatutako gaia**

Lanabes elektrikoak renting sistema bidez hornitzeko kontratua esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2017ko apirilaren 24ko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako 3.erabagi bidez, hornidura honetarako pleguak onartu eta deialdia zabaltzea onartu eban.

Kontratuaren ezaugarriak:

Xedea: Lanabes elektrikoen hornidura renting sistema bidez.

Epea: berrogeita zortzi hilabeterako.

Balio estimatua: 43.248,96€ gehi BEZ %21ari jagokozan 9.082,28€. Danetara: 52.331,24€

Bigarrena: 2017ko apirilaren 25ean Bermeoko Udaleko Kontratugilearen Profilean argitaratu zan deialdia eta baldintza pleguak. Aldi berean, espedientean agertu bezala, ondorengo enpresei gonbidapena bidali jake parte hartzeko:

ENKARKI SL-ALKIMAX-  
HILTI ESPAÑOLA SA  
WURTH ESPAÑA SA  
GARAJE AURTENETXE SA  
ALQUILERES CHACO

Hirugarrena: Horretarako emondako epearen barruan eskaintza bi aurkeztu dira: HILTI eta WURTH enpresena.

Eskaintzak aztertuta, Zerbitzu Saileko teknikariak bere txosten teknikoa emon eban ekainaren 2ko dataz, non, HILTI enpresaren eskaintza egokia dala adierazten dan.



Ez horrela WURTH enpresarena, lanabes mota guztiak ez dauzalako eskaini eta hori zuzentzeko emondako epean ez dau zuzenketarik egin. Ondorioz, baldintza pleguetako laburpen orriko S) atalean adierazi bezala, WURTH enpresaren eskaintza baztertuta geratu da, artikulua guztiak ez eskaintzearen.

Laugarrena: Guzti honen aurrean HILTI ESPAÑOLA SA enpresearen eskaintza da baliozko bakarra.

Horretarako epean, beharrezko dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu dau, banketxeko abal modura, 217002638 zenbaki erregistro bereziagaz. 841,97€-ko balioagaz.

### **Argudioak**

Lehenengoa: Kontsignazino nahikoa dago gastu honetarako. RC2017/126.

Bigarrena: TGB 2014-02-10/19. erabagiak onartutako kontratu txikietarako prozedura bete da.

Hirugarrena: Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartu dauan Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 138.2, 173.f) eta 177.2 artikuluen arabera, prozedura negoziatua publikidade bakoa bideratu da, diru kopuruaren arabera, 60.000,00€ tik beherako kontratazioa dalako. Hala ere, eta Europar Batasuneko 2014/24 Zuzentarauaren trasposizioan ari direnez, Prozedura negoziatua Publikidadeagaz bideratu da, kontratugilearen Profilean argitaratuz.

WURTH ESPAÑA SA enpresearen eskaintza baztertuta geratu da baldintza pleguetako laburpen orriko S) atalean adierazi bezala, artikulua guztiak ez eskaintzearen nahiz eta zuzentzeko aukerea emon izan.

Laugarrena: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

Bosgarrena: 2016ko urtarrilaren 25eko 43. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarraren eta Ekonomiako Zinegotzi Delegatuaren artean honela banandu dira eskumenak gastuen faseak onartzeko:

Tokiko Gobernu Batzarrak: AD faseak.

Zinegotzi Delegatuek: AD faseak (600,00€ rainoko gastuetan).

Kontu Batzordeko Zinegotzi Delegatua: OP faseak (edozein kopurutan).

### **Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:



**BAKARRA:** Erosketa hau HILTI ESPAÑOLA SA -A28226090- enpreari esleitzea ondorengo ezaugarriekaz:

Xedea: Erantsitako koadroan agertzen diran artikuluen hornidura, renting sistema bidez.

Kontratu epea: Berrogeita zortzi (48) hilabete.

Ordaintzeko epea: hileroko kuotak. 424,49€/hileko, BEZ%21 barne.

Gastu osoa: 20.375,63€ BEZ barne.

Garraio kosturik: Ez

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkatearen aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespénaren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2017ko uztailaren 6an.

ONETSIA  
ALKATEA

